# Osakidetzaren Identitate Grafiko Korporatiboaren eskuliburua



I. Eguneratzea

Osakidetza

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA



**ARGITARALDIA**
1.a 2022ko iraila

**EGILEA**
Osakidetza. Araba kalea 45
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

© Osakidetza
Euskal Autonimia Erkidegoko Administrazioa

**INTERNET**
www.osakidetza.euskadi.eus

**LEGE-GORDAILUA**

# Helburu nagusiak

Sortu zenetik, Osakidetzak etengabe zaindu du bere identitate zeinuei dagokien guztia. Helburua gizarteari irudi korporatibo bat erakustea da; eta irudi horren bidez erraz identifikatu behar dira Erakunde Publiko honek sustatzen dituen mezu eta erreferentziak.

Denborarekin sortu beharrizan tekniko eta komunikatiboek baldintzatu dute, batez ere, Identitate Korporatiboaren Eskuliburu berria sortzea. Horri esker, Osakidetza sarea osatzen duten erakunde guztiek identitate erkidea izatea bultzatu da.

Eskuliburua euskarri elektronikoan egin da. Alde batetik, Osakidetza sareko ordenagailuetan erraz erabili daiteke, eta bestetik Erakunde honen identitate grafikoaren zeinua behar duten hornitzaile eta profesionalek eskuragarri daukate berau, erraz eta egoki erabiltzeko moduan. Halaber, Eskuliburua egiten ari garen euskarri elektroniko honetan, erraza da unean-unean gehikuntzak edo aldaketak sartzea; adibidez, osasun arauak egokitzea edo Erakundearen identitate grafikoa aplikatzearekin erlazionatutako alorrak garatzea.

## 2022A EGUNERATZEA

2022an eguneraketa bat egin zen, Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak eskatutako berrikuspena sartzeko; zenbait irudi denboraren arabera egokitzeko; eta bi kapitulu gehitzeko: inprimatutako eta publizitateko dokumentazioari lotutako irudi korporatiboari buruzkoa eta espazio eta eraikinen diseinuari bruuzkoak.

# Aurkibidea


## 1 Sarrera ........ 14

1.1. Sarrera ........ 14

1.2. Terminologia ........ 14

## 2 Osakidetzaren marka ........ 20

2.1. Osakidetzaren marca ........ 20

2.2. Anagrama edo sinboloa eta logotipoa ........ 21

## 3 Arau unibertsalak ........ 24

3.1. Erabilerak ........ 24

3.2. Markaren bertsioak ........ 25

3.2.1. Koloretako bertsioak (positiboa) ........ 25

3.2.2. Koloretako bertsioak (negatiboa) ........ 26

3.2.3. Bertsioak zuri-beltzean (positiboa) ........ 27

3.2.4. Bertsioak zuri-beltzean (negatiboa) ........ 28

3.3. Kolore korporatiboa ........ 29

3.4. Markaren eraikuntza ........ 30

3.5. Babes eremua ........ 31

3.6. Markaren murrizketak ........ 32

3.7. Irisgarritasuneko irizpide orokorrak ........ 33

3.7.1. Baliabide bisualak ........ 33

3.7.2. Baliabide haptikoak ........ 42

4 **Markaren bizikidetzak** 50

4.1. Marka eta erakunde sanitario integratuak eta zerbitzu erakundeak 50

4.1.1. Erakundeen izenak kokatzea 50

4.1.2. Babes eremua erakundeen izenekin 72

4.2. Bizikidetza beste markekin 73

4.3. Bizikidetza Eusko Jaurlaritzaren markarekin (Osasun Saila) 74

4.4. Bizikidetza beste organismo eta erakundeekin 75

4.4.1. Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako sailak 75

4.4.2. Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko beste erakunde batzuk 76

4.4.3. Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako sail bat eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko beste erakunde batzuk 77

4.4.4. Osakidetza eta beste erakunde publiko batzuk 78

4.4.5. Osakidetza eta enpresak 79

4.5. Bizikidetza kalitate adierazleekin 80

5 **Papergintza orokorra** 84

5.1. Arau orokorrak 84

5.1.1. Tipografia motak 84

5.1.2. Elebitasun tratamendua 85

5.1.3. Zerbitzu elebidunen identifikazioa 86

5.1.4. Zuzendaritza orokorra eta gerentzia zuzendaritzak 87

5.2. Orri Nagusia 88

5.3. Inprimakiak 89

5.3.1. Lehenengo orriak 89

5.4. Bisita txartelak 90

5.5. Zigiluak 90

5.6. Txartel handia 91

5.7. Gutunazalak 92

5.8. Kopia eta faltsutzeen kontrako babesa 93

# 6 Argitalpen ofizialak, informazio eta publizitate kanpainak ..... 96

6.1. Estiloaren alderdi orokorrak ..... 96
6.1.1. Tipografia arauak ..... 96
6.1.2. Ilustrazioak ..... 97
6.1.3. Kolore-paleta ..... 98
6.1.4. Baliabide grafikoak ..... 100
6.2. Adibide praktikoak ..... 101
6.2.1. Orri nagusia ..... 101
6.2.2. Babes-orriak ..... 102
6.2.3. Bestelako argitalpenak ..... 103
6.2.4. Triptikoa ..... 104
6.2.5. Publizitate-komunikazioko kanpainak ..... 105
6.2.6. Osakidetzako + Eusko Jaurlaritzako bideoak ..... 107

# 7 Kanpoko eta barruko seinaleztapena ..... 112

7.1. Kanpoko seinaleak ..... 112
7.1.1. Gorpuzdunak ..... 112
7.1.2. Elementu monolitikoak ..... 113
7.1.3. Fatxadako errotuluak ..... 114
7.1.4. Identifikazio-plakak ..... 116
7.1.5. Norabidea adierazteko kanpo-seinaleak ..... 117
7.1.6. Beiraz hornitutako guneak ..... 119
7.2. Barneko seinaleak ..... 120
7.2.1. Norabidea adierazteko barneko seinaleak ..... 120
7.2.2. Direktorio orokorra eta solairuetako direktorioak ..... 121
7.2.3. Plano erliebedunak ..... 122
7.2.4. Solairuetako errotulazioa ..... 123
7.2.4.1. Erabilera nagusiko seinaleak ..... 123
7.2.4.2. Gelen erabilerari buruzko seinaleak ..... 123
7.2.5. Ikono-errotuluak. Piktogramak ..... 124
7.2.6. Larrialdietako errotuluak ..... 124
7.2.7. Informazio-gunea. Erakusmahaiko errotuluak ..... 125
7.3. Arropa zuriko errotuluak ..... 126
7.3.1. Bainugelako arropa zuria ..... 127
7.3.2. Oheko arropa zuria ..... 128
7.4. Akreditazioa bisitariei ..... 129

8 **Ibilgailuak** 132

8.1. Zerbitzu ez-asistentzialeko ibilgailuak 132
8.2. Urgentziazko zerbitzu asistentzialeko ibilgailuak 133
8.3. Anbulantziak 134
8.3.A ZIU mugikorra 136
8.3.B Oinarrizko bizi-euskarria 137
8.4. Helikopteroak 138
8.5. Biktima anitzeko gertakariak BAG 139
8.6. Emergentzietako ibilgailu asistentziala 140
8.7. Emergentzietako logistikako ibilgailua 141

# I. Eranskina

**Azpiegituretako eraikinen barneko gida bisuala** 144

1. Kontzeptu-esparrua 144
2. Helburua 144
3. Irismena 144
4. Diseinu korporatiboa 145
4.1. Hormak 145
4.1.A Pintura 146
4.1.B Sareta 146
4.1.C Horma-estaldura binilikoa 147
4.2. Zorua 148
4.2.A Birmoldaketa-obra 148
4.2.B Obra berria 150
4.3. Sabaia 152
4.4. Itxaronaldietarako eta bisitetarako aulkia 153
4.5. Hormako elementu akustikoak 154

# 1. Sarrera eta terminologia

# 1. Sarrera eta terminologia

## 1.1. Sarrera

Identitate Korporatiboko Eskuliburuak Osakidetzako marka berriztatua aurkezten du eta egoki erabiltzeko arauak definitzen ditu.

Gainera, Osakidetza sareko zerbitzu-erakundeetan marka erabiltzeko beharrezko aplikazioak dauzka, baita beste organismo eta erakundeen zeinu grafikoekiko bizikidetza ere.

Eskuliburuak konponbideak ematen ditu, sarri erabiltzea- gatik beharrezko bihurtu diren elementu eta komunikazio euskarrietan marka aplikatu edo kopiatzeko.

Eskuliburuak diseinuarekin lotutako soluzioak ematen ditu, pertsona guztiek, beren adina, generoa edo gaitasunak gorabehera, Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuak eta espazioak erabili ahal izateko.

## 1.2. Terminologia

Eskuliburua hobeto ulertzeko, hona hemen Osakidetzako errealitateari eta ezaugarriei aplikatutako definizio teknikoak:

### Irudi korporatiboa

Pertsona batek daukan Erakundearen identitatearen pertzepzioa. Irudi mental bat da, korporazio konkretu bati eta horrek adierazten duenari lotutakoa.

### Identitate korporatiboa

Osakidetzaren irudi korporatiboaren adierazpen fisikoa da. Logotipoa, anagrama, tipografia, koloreak eta Osakidetzaren irudia osatzen duten elementu guztiak; gizartearen aurrean, beste organismo, instituzio eta erakundeetatik desberdintzen dutenak.

### Logotipoa

“OSAKIDETZA” hitza osatzen duten eta bloke batean dauden letrak.

### Anagrama

Osakidetza markan sartutako sinbolo grafiko integratua da. Hitzaren “O” letra da, gurutze sanitario batean gain jarrita.

### Marka

Logotipo eta anagramaz osatutako multzo grafikoa da, eta Osakidetzarekin berehala identifikatzeko aukera ematen du. Osakidetzaren marka logotipoaren eta anagramaren arteko lotura banaezina da, eskuliburu honetan azaldutako salbuespenak salbuespen.

### Identitate korporatiboaren eskuliburua

Osakidetzaren identitate korporatiboa edozein komunikazio euskarritan erabiltzeko arau erregulatzaileak biltzen dituen azalpena da.

### Babes eremua

Osakidetzaren markaren inguruan dagoen espazioa da, hor ezin da beste elementu grafikorik egon.

### Kolore bakarreko bertsioa

Osakidetzaren marka kopiatzeko kolore aukera bakarra da, kolore kode espezifikoa dauka.

### Kolore bakarreko negatibo bertsioa

Osakidetzaren marka zuria, koloretako atzealde batean.

### Tipografia

Osakidetzaren edozein zerbitzu-erakundetatik bidalitako argitalpen edo komunikatutan erabiliko den letra mota zehazten duten ezaugarri grafikoak dira.

### Seinaletika

Sinbolo eta mugarri multzoa da, diseinu korporatibo konkretua dauka eta konbentzio sozialen bidez, Osakidetza sarearen arlo, zerbitzu, leku eta zentroen kokapena adieraziko du.

### Errotulua

Inskripzioa eraikinaren arkitekturan sartuta dago, eta Osakidetzaren zerbitzu-erakunde baten edo horren guneetako baten iragarlea edo identifikazio elementua da.

### Paramentu edo arkitektura-elementu bertikala

Edozein eraikuntza-elementu bertikalen aldeetako bakoitza, hala nola paretak eta murruak.

### Informazio bisuala

Informazioa ikusmenaren bidez eskuratzea.

### Informazio haptikoa

Informazioa ukimenaren bidez eskuratzea.

### Goi-erliebea

Oinarritzat duen gainazalaren gainean egoteko erliebe nahikoa duen elementua, ukimenaren bidez informazioa hauteman eta ulertu ahal izateko balio duena.

### Kontrastea

Ondoan dauden bi kolorek intentsitate desberdina izatea, bata bestetik ongi bereizi ahal izateko.

### Ergonomikoa

Erabiltzailearen baldintza fisiologikoetara egokitutako elementua.

### Serif gabekoa

Tipografia honetan karaktereak marra uniformekoak dira eta ez dute errematerik edo apaingarririk izaten ertzetan. Sans Serif ingelesezko hitzaren baliokidea da.




Adibidea:

Ertz errematedunа (ezkerrean) eta errematerik gabekoa (eskuinean).

### X-ren altuera

Goranzkoak nahiz beheranzkoak ez diren letra xeheen (a, c, e, i, m, n, o, r, s, u, v, w, x, z) goiko eta beheko ertzen arteko dimentsioa.

### Biribil, fin, erdibeltz eta beltza

Letra baten pisua haren oinarri-marraren zabalerak zehazten du. Marraren lodiera aldatzen denean, karaktere arinagoak edo ilunagoak sortzen dira.

### Tipografia kondentsatua

Begi estuko eta bertikalean luzatutako tipografia, tipografiaren diseinatzaileak konfigurazio horrekin sortua.

### Tipografia hedatua

Begi zabaleko eta horizontalean luzatutako tipografia, tipografiaren diseinatzaileak konfigurazio horrekin sortua.

### Ikonoa

Irudikatutako objektuarekin antzekotasun- erlazioa duen zeinua.

### Piktograma

Informazio baten formalizatze ikonikoa, testu bat haren esanahiarekin lotutako irudi batez ordezten duena. Haren bidez berehala ematen zaio informazioa publiko heterogeneo bati, elementu sinpleak erabiliz eta hizkuntza-, kultura- eta kognizio-oztopoak gainditzen dituen hizkuntza unibertsal bat erabiliz.

### Podotaktila

ikusteko desgaitasuna duten erabiltzaileek oinekin edo makulu zuriarekin hautemateko moduko gainazala edo elementua.

### Irisgarritasunaren nazioarteko sinboloa

desgaitasuna duten pertsonentzako elementu, leku eta ibilbide egokituak identifikatzeko sinboloa. Gurpil-aulkian dagoen erabiltzailearen irudi zuri estilizatua ageri da hondo urdin baten gainean (pantone reflex blue). Diseinua ISO 7000 Nazioarteko Arauaren bidez dago erregulatuta.

### Braille-sistema

ukimenaren bidez irakurtzeko eta idazteko sistema, ikusteko desgaitasuna duten pertsonei zuzendua.

### Sistema haptikoa

informazioa ukimenaren bidez transmititzeko sistema.

# 2. Osakidetzaren marka

# 2. Osakidetzaren marka

## 2.1. Osakidetzaren marka

Osakidetzaren marka logotipoaren eta anagramaren lotura banaezina da, eskuliburu honetan azaldutako salbuespenak salbuespen.

Euskarri desberdinetako diseinuari konponbide grafikoa emateko, markaren hiru bertsio daude: “Marka Horizontala”, “Marka Bertikala” eta “Marka Sinplifikatua”.

Bertsioetako bakoitza erreferentzia teknikoen eta eskuliburuan azaltzen diren erabilera arauen arabera erabiliko da.

Marka Horizontala

Osakidetza

Marka Bertikala

Osakidetza

Marka Sinplifikatua

## 2.2. Anagrama edo sinboloa eta logotipoa

Osakidetza markaren anagrama hitzaren “O” letra adierazten duen sinbolo grafikoa da, osasun gurutze batean gainjarria.

Logotipo korporatiboa “OSAKIDETZA” hitza osatzen duten karaktereek osatzen dute.

Anagrama

Osakidetza

Logotipoa

Osakidetza

# 3. Arau unibertsalak

# 3. Arau unibertsalak

## 3.1. Erabilerak

Osakidetzaren marka derrigor erabiliko da, sareko zerbitzu- erakundeek argitaratzen dituzten edozein dokumentu, irudi bidezko elementu edo argitalpenetan.

Osakidetzaren marka izango da zerbitzu-erakundeak identifikatu ahal izango dituen bereizgarri bisual bakarra. Beste sinboloak alde batera uzten ditu, Eusko Jaurlaritzari dagokiona izan ezik.

Hemen agertu beharko dira:

- Eraikin ofizialetan (osasun-zentroak, ospitaleak, administrazio-unitateetako bulegoak, zerbitzu-erakundeak...).
- Osakidetzak igorritako diplometan.
- Erabilera ofizialeko dokumentu, inprimaki, zigilu eta idazpuruetan.
- Publizitatean eta iragarki ofizialetan.
- Ordezkaritza erakusteko erabilitako elementu ofizialetan.

ESIetako eta zerbitzu-erakundeetako gerentziek ikusizko nortasuneko ikurrak behar bezala erabiltzen direla zainduko dute.

Marka Horizontala

Marka Bertikala

# 3.2. Markaren bertsioak

## 3.2.1. Koloretako bertsioak (positiboa)

Markaren bertsio sinplifikatua, salbuespen bezala, diseinu elementu bezala soilik erabili ahal izango da.

Bertsio sinplifikatua daukaten diseinu irudiak, aurretik ontzat eman beharko ditu ESIko edo dagokion zerbitzu-erakundeko komunikazio arduradunak.

Bertsio hori beste erakunde ofizial batzuekin erabiltzekoa denean, Osasun Saileko komunikazio arduradunaren onespena beharko du.

Marka Horizontala

Osakidetza

Marka Bertikala

Osakidetza

Marka Sinplifikatua

## 3.2.2. Koloretako bertsioak (negatiboa)

Markaren bertsio sinplifikatua, salbuespen bezala, diseinu elementu bezala soilik erabili ahal izango da.

Marka Horizontala

Marka Bertikala

Marka Sinplifikatua

## 3.2.3. Bertsioak zuri-beltzean (positiboa)

Markaren bertsio sinplifikatua, salbuespen bezala, diseinu elementu bezala soilik erabili ahal izango da.

Marka Horizontala

Osakidetza

Marka Bertikala

Osakidetza

Marka Sinplifikatua

## 3.2.4. Bertsioak zuri-beltzean (negatiboa)

Markaren bertsio sinplifikatua, salbuespen bezala, diseinu elementu bezala soilik erabili ahal izango da.

Marka Horizontala

Marka Bertikala

Marka Sinplifikatua

## 3.3. Kolore korporatiboa

Osakidetzaren marka kolore bakarrekoa izango da beti; hau da, logotipoa eta anagrama kolore korporatibo berean adieraziko dira.



# 3.4. Markaren eraikuntza

## Marka Horizontala




## Marka Bertikala



# 3.5. Babes eremua

Babes eremua Osakidetzaren markaren inguruan dagoen espazioa da, eta hor ezin da beste elementu grafikorik egon.

Babes eremu horizontal eta bertikal bat daude bertsio bietarako, baita hirugarren babes eremu bat ere, bertsio sinplifikatuko markarako.

Marka Horizontala




Marka Bertikala




Marka Sinplifikatua



# 3.6. Markaren murrizketak

Osakidetzaren marka soilik erabiliko da 30 mm-tik gorako zabalerarekin bertsio horizontalean eta 18 mm-tik gorakoarekin bertsio bertikalean.

Salbuespen modura, logotipoa erabili ahal izango da, 30 mm-ko tamainarekin (ikus 27. orrialdea).

Marka Horizontala

Gutxieneko tamaina gomendatua: 30 mm

Marka Bertikala

Gutxieneko tamaina gomendatua: 18 mm

# 3.7. Irisgarritasuneko irizpide orokorrak

Atal honetan, identitate grafikoko baliabideak diseinatzerakoan kontuan izan beharreko zenbait jarraibide daude deskribatuta, pertsona ororentzat irisgarriak izan daitezen, eta, horrela, pertsona horiek izan ditzaketen baldintzatzaileak eta mugak gorabehera, edozein ingurune eta/edo egoera errazagoa izan dadin erabiltzaile guztientzat.

## 3.7.1. Baliabide Bisualak

### 3.7.1.1. Testuen tamaina

Zeinuen tamaina haiei begiratzen dien pertsonaren ikusmen-zolitasunak eta begiratzean dagoen distantziak baldintzatzen dute nagusiki.

Erabilitako letren tamaina haiek irakurtzeko behar den distantziaren araberakoa da. Honako taula honetan, distantzia desberdinetarako tamaina minimoak eta gomendagarriak ageri dira:

| DISTANTZIA | TAMAINA | |
|---|---|---|
| | MINIMOA | GOMENDAGARRIA |
| 5 m | 70 mm | 140 mm |
| 4 m | 56 mm | 110 mm |
| 3 m | 42 mm | 84 mm |
| 2 m | 28 mm | 56 mm |
| 1 m | 14 mm | 28 mm |
| 50 cm | 7 mm | 14 mm |

Letren tamaina, distantziaren arabera (UNE 170002-tik ateratako taula).

Distantzia handiagoetarako (testu monolitoak erabiltzen badira) H=L/200 erregela aplika daiteke. Non: H = letra- tipoaren tamaina (cm) eta L = irakurtzeko distantzia (cm).

### 3.7.1.2. Norabide-kodea

#### Geziak

Geziak haiei lotutako testuaren ondoan jarri behar dira, bai karaktere bisualen kasuan (20 mm-ra), bai braille-sinboloen kasuan (10 mm-ra).

Testuaren ezkerraldean kokatu behar dira ezkerreranzko, goranzko edo beheranzko norabidea adierazten dutenean. Testuaren eskuinaldean kokatu behar dira, berriz, eskuineranzko norabidea adierazten dutenean.

#### Piktogramak edo karaktere bisualak dituzten geziak

**a:** geziaren luzera.

**b:** geziaren altuera.

Biek ala biek (a eta b) sinboloaren edo letraren tamainarekiko proportzioari eutsi behar diote.

**c:** geziaren erliebearen altuera: 0,5 mm, gutxienez; 1 mm, gomendagarria.

**d:** marraren zabalera: 1,5 mm–3 mm.

#### Geziak braillez

**a:** geziaren luzera: 12 mm ± 2 mm.

**b:** geziaren altuera: 10 mm ± 2 mm.

**c:** geziaren erliebearen altuera: 0,5 mm, gutxienez, eta, 1 mm, gomendagarria.

**d:** marraren zabalera: 1,2 mm–2 mm.




Goi-erliebea duten gezien parametroak.




Braille duten gezien parametroak.

### 3.7.1.3. Piktogramak. Publikoari informazioa emateko sinboloak

Piktogramak tresna onak dira ingurune batean orientatzeko eta hari buruzko informazioa emateko. Nolanahi ere, sinbolo gehiegi egonez gero, bilatzen denaren kontrako efektua lor daiteke: komunikazio-prozesua zailtzea. Hori dela eta, gomendagarria da erabilera mugatua egitea; batetik, zer sinbolizatu nahi den zehaztea, eta, bestetik, informazio-euskarrietan zenbat sinbolo jarriko diren batera zehaztea.

Gutxienez, jarraian adierazten diren elementu eta instalazioak seinaleztatu behar dira desgaitasuna duten pertsonentzat:

a) Mugikortasun mugatuko pertsonei dagozkienak, hala nola:

- Ibilgailuak aparkatzeko plazak (aparkalekuak, garajeak).
- Sarbideak eta sarrera irisgarriak, bereziki sarrera nagusikoak eta haiek berberak ez direnean.
- Sarbideetan / sarreretan eta irisgarriak ez diren ibilbideen hasieran norabide-seinaleak jarriko dira, eta irisgarria den ordezko ibilbidea / sarrera argi adieraziko da.
- Igogailu irisgarriak –igogailu guztiak irisgarriak ez badira–, plataforma jasotzaileak eta antzeko gailuak.
- Erabilera orokorreko higiene-zerbitzuak eta gela higieniko-sanitario irisgarriak (komun irisgarriak, dutxa irisgarria, aldagela-kabina irisgarriak).
- Gurpil-aulkiak eta eserleku irisgarriak erabiltzen dituzten erabiltzaileentzako erreserbatutako guneak (ekitaldi-aretoak, itxaron-gelak eta abar).
- Larrialdiko irteera irisgarrien ibilbideak eta babesguneak.

b) Ikusmen-urritasunak dituzten pertsonei dagozkienak, hala nola:

- Itsu-txakurrentzako instalazioak.
- Entzumen eta ukimen bidezko informazioa ematen den lekuak.

c) Entzumen-urritasunak dituzten pertsonei dagozkienak, hala nola:

- Begizta magnetikoa edo entzuteko desgaitasunak dauzkaten pertsonentzat egokitutako bestelako sistemak dauden guneak.

d) Erabilera komuneko beste batzuk:

- Eskailerak.
- Eskailera/arrapala mekanikoak.
- Aparkalekua.
- Informazio- / Onarpen-gunea.
- Debekuak (debekatuta aurrera egitea/ erretzea/ telefono mugikorra erabiltzea/ ...).

Jarraian, piktograma erabilienen zenbait adibide, UNE 21542-tik aterata (ISO 7001):



Sarbide inklinatua edo arrapala



Sarbide inklinatua edo arrapala



Komunak - Irisgarria, emakumeak eta gizonak



Komunak - Irisgarria, emakumeak



Komunak - Irisgarria, gizonak



Igogailu irisgarria (ISO 7001, PI PF 031)



Larrialdiko irteera irisgarriaren ibilbidea

Piktogramen tamaina haiek hauteman behar diren distantziaren arabera zehaztuko da. Honela:

- Distantzia handia: Piktograma identifikatzaileak.
  2 m-ko distantziatik identifikatu behar dira; beraz, piktogramak gutxienez 20 x 20 cm-ko tamaina izan beharko du.
- Distantzia laburra. 1 m-ko distantziatik identifikatu behar da; beraz, piktogramak gutxienez 10 x 10 cm-ko tamaina izan beharko du.
- Hurbileko distantzia mahaigaineko euskarrietan eta liburuxka motako irakurketa-informazioa. 0.5 cm-ko distantziatik identifikatu behar da; beraz, gutxienez 5 x 5 cm-ko tamaina izan beharko du.

### 3.7.1.4. Akaberak eta kontrastea

- Euskarriaren materialak matea izan behar du, edo, gutxienez, % 15ekoa baino leunketa-faktore txikiagokoa, bai hondoetan, bai karaktere eta piktogrametan.

  Akabera-gainazalak ez ditu distirak eta itsualdiak eragin behar; hori ez gertatzeko, ez dira honako akabera-produktu hauek erabiliko: metakrilatoa, azetatoa eta antzekoak.

  Errotulua zuzen identifikatu eta irakurtzeko, jartzen edo finkatzen den gainazalarekiko kontraste kromatikoa izan beharko du. Era berean, informazio-edukiek (testuak eta piktogramak) kontrastea izan behar dute jartzen diren errotuluaren hondoarekiko.

- Irudiaren eta hondoaren arteko kontrasteak % 60koa izan behar du planteatutako bi kasuetan.
- Kontrastearen modulazioa kalkulatzeko ekuazio hau aplikatzean datza kontraste kromatikoaren ebaluazio-prozedura:

  **Cm = (Lmax. – Lmin. / Lmax. + Lmin.) × 100**

  Cm: Kontrastearen modulazioa (%)

  Lmax.: Kolore argienaren erreflektantzia

  Lmin.: Kolore ilunenaren erreflektantzia

- Kolore bakoitzaren erreflektantzia-maila zehazteko, fotometro bat erabiltzea gomendatzen da. Neurketa egiteko, koloreen preskripziorako erabiltzen diren kolore-erakusgaiak hartu behar dira oinarritzat (RAL, Pantone, NCS eta abar).

- Paramentuetara atxikitako seinaleei dagokienez, haiek instalatuko diren gainazalaren eta errotuluaren artean behar besteko kontrasterik ez dagoela hautematen bada, ertz kontrastatu bat jarriko da seinalearen inguruan, euskarria behar bezala identifikatzeko. Ertz horren zabalerak seinalearen zabaleraren % 10 izan beharko du gutxienez.

- Kontrasteei buruzko orientazio-taula, koloreen oinarrizko kategorietan oinarrituta: gorria, urdina, horia, berdea, laranja, morea, marroia, beltza, zuria eta grisa.

## Kontrasteei buruzko orientazio-taula

| Pantone Red 032 | Pantone 2935 | Pantone Yellow 012 | Pantone 347 | Pantone Orange 021 | Pantone Violet C | Pantone 449 | Pantone Process Black | Pantone Cool Gray 9 | Blanco |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EZ | | | | | | | | | |
| BAI | BAI | | | | | | | | |
| EZ | EZ | BAI | | | | | | | |
| EZ | EZ | EZ | EZ | | | | | | |
| EZ | EZ | BAI | EZ | EZ | | | | | |
| EZ | EZ | BAI | EZ | EZ | EZ | | | | |
| EZ | EZ | BAI | EZ | BAI | EZ | EZ | | | |
| EZ | EZ | BAI | EZ | EZ | EZ | EZ | EZ | | |
| BAI | BAI | EZ | BAI | EZ | BAI | BAI | BAI | BAI | |

### Kolorea

Norabide-seinaleak (kanpo- eta barne-norabideak) errazago ulertzeko, testuetan koloreak erabiltzea gomendatzen da.

Horrela honako hauek bereizi ahal izango dira gutxienez:

| **FUNTSEZKO INFORMAZIOA/ ERABILERAK** | ZERBITZU MEDIKOAK ETA ASISTENTZIALAK | LARRIALDIAK | LOGISTIKA ETA ZERBITZU OROKORRAK (OSPITALEKO ERABILERA PRIBATUA) | IRTEERA |
|---|---|---|---|---|
| **ADIB. HONDO ZURIAREN GAINEAN JARTZEKO KOLORE GOMENDATUA** | **"Osakidetza" urdina Pantone 273** | **Gorria Pantone 032** | **Gris iluna Pantone 10390 C** | **Berdea Pantone 368** |

Braillez emanda dagoen testuak, betiere ekoizteko baldintza teknikoek halakorik ahalbidetzen badute, erliebea izateaz gain, karaktere bisualen kolore bera izan beharko du, izan letrak edo piktogramak, edo, behintzat, seinalearen hondoarekin kontrastea egiten duen kolore desberdin bat. Horrela, ongi ikusten ez dutenek braille bidezko errotulazioa dagoela ikus dezakete, bai eta non dagoen ere.




Hondoko kolorearekiko kontrastea egiten duen braillea (UNE 170002:2009).

### 3.7.1.5. Seinaleen kokapena

Seinaleak eguneko edozein unetan ongi argiztatutako lekuetan jarriko dira, itzalak eta distirak saihestuz. Halaber, haren kokapenak ez ditu efektu horiek eragingo kontraargiaren ondorioz.

Oztopoak, kristalak eta seinalera hurbiltzea edo hura erraz irakurtzea zailtzen duten bestelako elementuak saihestuko dira.

Badira zenbait seinale tipologia, kokapenaren arabera bereiziak:

- **Paramentu bertikalari atxikitako seinalea:**

  Erraz irakurtzea ahalbidetzen duen eta ikusmen-angelu estandarrera egokituta dagoen altuera-tarte batean jarriko dira (batez besteko altuera: 1,60 m; eserita/gurpil-aulkian: 1,25 m)

  Seinale atxikiek ez dituzte izan behar haiek irakurtzeko oztopoak, ikusmen mugatua duten pertsonek gutxieneko distantzia batera irakur ahal ditzaten (0,5 m-ra arteko hurbiltzea).

  Pertsonak pilatu daitezkeela aurreikusten den kasuetan (korridoreak eta atariak) edo 2 m-tik baino urrunagotik ikustea nahi den seinaleen kasuan, ikusmen-lerroa baino gorago jarriko dira.

- **Sabaitik zintzilik dagoen seinalea eta irtena dagoen seinalea (banderola):**

  Seinalearen azpiko ertzaren eta zoruaren artean 2.200 mm-ko tartea utzi behar da.

  Ez dute ezein kasutan baliabide haptikorik izango.

  Funtsezko guneen seinaleak indartzeko erabiltzen dira, korridoreen hasieratik haien kokapena adierazteko beharra dagoenean. Gune horiek komunak, igogailuak eta gune nagusietarako sarbideak izan ohi dira.




Irudia.

- **Zoruan finkatutako seinaleak (zutoin edo totem motakoak):**

  Seinaleek igarotzeko tarte nahikoa utzi beharko dute (hiri-ingurunean, 2 m gutxienez; eraikinetan, 1.20 m).

  Monolitoek eta zoruan finkatutako bestelako euskarriek gurpil-aulkietan dabiltzan pertsonei 180 graduko bira egiten utzi behar diete (1.800 mm).

Seinale mota desberdinak ahalik eta orientazio onena lortzeko moduan konbinatu behar dira:




Funtsezko gelen erabilerari buruzko seinaleak indartzekoak.




Igogailuen seinaleak (zintzilik) eta direktorioa (paretari atxikita).




Korridoreen elkarguneetako norabide-seinaleak (zintzilik eta paretari atxikita).

## 3.7.2. Baliabide haptikoak

### 3.7.2.1. Braille-sistema

**Zeinu sortzailea**

Braille idazketa-irakurketarako sistemak sei puntuko matrize bat erabiltzen du sistema garatzeko; sei puntu horiek bi zutabetan eta hiru lerrotan banatzen dira.

Sei puntu horiek konbinatuz gero, braille-karaktereak lortzen dira (64 konbinazio; haietako bat guztiz hutsik dago, hau da, ez du punturik).

Ukimenaren bidez irakurtzen da braille-sisteman, hatzmamiez; izan ere, hatz-mamiak dira ukimen-estimuluak bereizteko gure gorputzean ditugun gune sentikorrenetakoak. Irakurtzeko modukoak izateko, neurri zehatz batzuk izan behar dituzte. Ezin dute hatz-mamien azalera baino handiagoa izan, bestela, ezingo lirateke irakurri.

Braille-idazkera irakurketa bisualaren noranzko berean egiten da, hau da, ezkerretik eskuinera.

**Braille-gelaxkaren neurriak:**

**Altuera:** 6,2 mm eta 7,10 mm artean.

**Zabalera:** 3,7 mm eta 4,5 mm artean.







Braille-gelaxka

Inprimatuta eta goi-erliebean dauden karaktereak seinalearen goiko aldean jarri behar dira. Hitz bakarreko errotulua baldin bada, erdiratuta kokatuko dira karaktereak, eta, hitz bat baino gehiagokoa baldin bada, berriz, ezkerraldean justifikatuta. Braille-karaktereak azpialdean jarri behar dira beti, eta ezkerraldean justifikatuta. Braille-karaktereak osatzen dituzten puntuak errotuluaren ezkerraldeko azpiko ertzetik gutxienez 10 mm-ra egon behar dute, eta, gehienez, 30 mm-ra.




Braillez eta goi-erliebeko karaktere bisualez idatzitako errotulua (UNE 170002:2009).

### 3.7.2.2. Ikusteko desgaitasuna duten pertsonek ekorketa ergonomikoa egiteko eremua

Baliabide haptikoen bidez ematen den informazioa zorutik 900 mm eta 1.750 mm artean jarri behar da. Braillez edo goi-erliebez emandako informazioak ez ditu 600 mm baino gehiagoko luzera izan behar.

Baliabide haptikoak dituzten seinaleak, ahal bada, zorutik 1.500 mm-ra jarriko dira.

Ekorketa ergonomikoaren eremuaren mugak:

Minimoa: 900 mm

Maximoa: 1.750 mm

Zabalera maximoa: 600 mm




Ikusteko desgaitasuna duten pertsonek ekorketa ergonomikoa egiteko eremua (UNE 170002:2009).

### 3.7.2.3. Goi-erliebea. Letrak goi-erliebean

#### Erabilera

Testu laburrekin, zenbakiekin eta sinboloekin soilik erabiliko da. Goi-erliebea testu luzeetan erabiliz gero, ez da batere eraginkorra.

#### Tamainak

Goi-erliebean idatzitako letrek 15 mm-ko tamaina izango dute gutxienez, eta 50 mm-koa, gehienez.

#### Osaera

Goi-erliebean idatzitako letrak beti dira letra larriak.

**Lerrokatzea**

Seinale batean hizkuntza bakoitzeko testu-lerro bat jartzen bada, erdialdean lerrokatzen da. Seinalean hizkuntza bakoitzeko testu-lerro bat baino gehiago jartzen bada, ezkerraldean lerrokatzen da.

**Karaktereen arteko tartea**

5 mm eta 10 mm artekoa, letraren gorputzaren arabera.

**Lerroartekoa**

Hizkuntza bereko bi testu-lerroren artean letraren tamainaren 2/3 dituen lerroartekoa jartzea gomendatzen da (esaterako, letra batek 15 mm baldin baditu, 10 mm-koa izango da lerroartekoa).

Hizkuntza desberdineko bi testu-lerroren artean letraren tamaina berbereko lerroartekoa jartzea gomendatzen da (esaterako, letra batek 30 mm baldin baditu, 30 mm-koa izango da lerroartekoa).

**Erliebea aplikatzea**

Letra eta zenbakietan, karakterearen marraren erdian aplikatzen da erliebea; ez da aplikatzen zeinuaren ingeradaren barnealdeko eta barrualdeko ertzetan.

**Erliebearen parametroak**

Erliebearen altuera: 0,5 mm - 1 mm. Marraren zabalera 1,5 mm-koa izango da gehienez, eta, 2 mm-koa, gutxienez.

**Erreprodukzio-baldintzak**

Erliebearen altuera: 0,5 mm - 1 mm. Marraren zabalera 1,5 mm-koa izango da gehienez, eta, 2 mm-koa, gutxienez.

**Geziak eta sinboloak**

Goi-erliebean egindako sinbolo baten altuera 100 mm-koa izango da gutxienez. Erliebearen parametroak letrenak bezalakoak dira.

### 3.7.2.4. Seinale podotaktilak

Ukimenean eta ikusmenean oinarritutako gidatze-sistema bat da, zoladuran jartzen dena. Sistemaren helburua da ibilbide nagusiak bermatzea eta arriskuez ohartaraztea.

Ukimenaren bidezko zoladura adierazleak erliebea izango du, ez labaintzeko materialez egina egongo da eta ikusteko desgaitasuna duten pertsonek oinez eta makulu zuriarekin informazioa erraz hauteman eta jaso ahalko dute.

Orientazio eta zabalera aldakorreko zerrendak eginez eraikiko da, eta inguruko zoladuratik bereizi ahal izateko behar besteko kontrastea izan beharko du.

Diseinu normalizatua izan beharko du; UNE CEN/TS 15209:2009 arauaren arabera, Espainian ildaska-zerrendak (luzetara eta zeharka) eta botoiak izatea da diseinu normalizatua.

a) Ildaska-zoladura: oinezkoen ibilbide irisgarrian bidea edo gida adierazteko, bai eta maila-aldaketako elementuak inguruan badirela adierazteko ere. Ildaska zuzen eta paralelozko akabera duten piezaz edo materialez osatuta egongo da.

b) Ondoan edo inguruan arrisku-puntuak daudela adierazteko zoladura taktila. Botoi tronkokonikoz osatuta egongo da. Botoiek erretikula ortogonal bat osatzeko moduan ezarriko da zoladura, martxaren noranzkoan orientatuta, gurpilak dituzten elementuak errazago pasa daitezen.







(Adibidez: 200 mm x 200 mm)

Botoien ukipen-baldosaren neurri nominalak.




Botoi-baldosaren profila.

| L (mm) | A (mm) | B (mm) | $C_1$ (mm) | $C_2$ (mm) | H (mm) | Banda kopurua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 200 x 200 | 50 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 4 |
| 300 x 300 | 50 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 6 |
| 400 x 400 | 50 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 8 |

| L (mm) | A (mm) | $D_1$ (mm) | $D_2$ (mm) | $C_1$ (mm) | $C_2$ (mm) | H (mm) | Botoi kopurua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 200 x 200 | 50 | 20 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 4 |
| 300 x 300 | 50 | 20 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 6 |
| 400 x 400 | 50 | 20 | 25 | 25 | 12,5 | 5 | 8 |

Zoladura podotaktilen diseinu normalizatua UNE CEN/TS 15209:2009 EX

## Erabilera-eremuak

### Kanpoko urbanizatutako guneak

- Norabide-gida gisa: hiri-ingurunean muga fisikorik ez badago, eta, hori dela eta, sarrera irisgarrira arte orientatzea beharrezkotzat jotzen bada, luzetarako ildaska-zerrenda jarriko da.
- Maila-aldaketa bat dagoela adierazteko: zeharkako ildaska-zerrenda, eskaileretara, arrapaletara eta igogailuetara sartzeko eta haietatik ateratzeko guneetan.
- Arrisku batez ohartarazteko: zoladura botoiduna, gurutzatzeko guneetan eta nasa-ertzetan galtzada gertu dagoela ohartarazteko.

### Eraikinak

- Norabide-gida gisa: luzetarako ildaska-zerrenda, sarreratik deigune irisgarri bateraino edo arretako gune irisgarri bateraino iristen den ibilbide irisgarria seinaleztatzeko.
- Maila-aldaketa bat edo sarbide edo helmuga batekin muga dagoela ohartarazteko: zeharkako ildaska-zerrenda, eskaileratara sartzeko eta haietatik ateratzeko guneetan. Arrapaletara eta igogailuetara sartzeko ere gomendatzen da.
- Bideraketak edo zirkulazioak gurutzatzen direla ohartarazteko: zoladura botoiduna, balizko gurutzaguneei edo norabide-aldaketei buruzko erabakiak hartzeko.

## Parametro dimentsionalak

### Zerrenda seinaleztatzaileak, norabide-gida gisa

Ildaska-zerrenda seinaleztatzailea martxaren noranzkoarekiko paraleloan jarriko da, eta 40 cm-ko gutxieneko zabalera izango du. Baldosen erliebea 5±1 mm-koa izango da kanpoko ibilbideetan, eta 3±1 mm-koa, berriz, eraikinen barruko ibilbideetan.

### Maila-aldaketei buruz ohartarazteko zerrenda seinalezta- tzaileak

Ildaska-zerrenda seinaleztatzailea zeharka jarriko da martxaren noranzkoarekiko, maila-aldaketari buruz ohartarazteko. Elementuaren (eskailera, arrapala edo igogailua) zabalera izango du.
Kanpoko guneetan, sakonera 120 cm- koa izango da, eta, erliebea, berriz, 5±1 mm-koa. Eraikinen barrualdean, sakonera 80 cm-koa izango da, eta, erliebea, berriz, 3±1 mm-koa.

### Zirkulazioen gurutzagunea. Errosetoiak

Gainazal-elementu botoiduna, bideraketa-zerrendarekiko geometria bereizia duena (dimentsioak: 120*120 cm).

# 4. Markaren bizikidetzak

# 4. Markaren bizikidetzak

## 4.1. Marka eta erakunde sanitario integratuak eta zerbitzu erakundeak

### 4.1.1. Erakundeen izenak kokatzea

Izena Osakidetzaren markaren babes eremuaren ondoan jarriko da.

Zenbait dokumentutan ESIaren eta/edo zerbitzu erakundearen **izen ofizial** osoa erabiliko da, kasurako erakundeentzako jakinarazpenetan, kontratuetan, iragarki ofizialetan, deialdietan, ESIen arteko barne-postan eta antzekoetan, edozein euskarritan daudela ere.

Erakunde sanitario integratuaren (ESI) **izen laburra** erabiliko da, aldiz, barne-komunikazioan, aldizkarietan, intranetean, herritarrengan eragina daukaten dokumentuetan, eta horrelakoetan.

#### MARKA HORIZONTALA, 25 KARAKTERE EDO GUTXIAGOKO ZENTROEN IZENEKIN







#### MARKA BERTIKALA, 25 KARAKTERE EDO GUTXIAGOKO ZENTROEN IZENEKIN






# ZERBITZU ERAKUNDEEN ZERRENDA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Osakidetza

**OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
DIRECCIÓN GENERAL
DEL ENTE PÚBLICO OSAKIDETZA

h

1/2h
4/5h
1/3h
4/5h

Osakidetza

**OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
DIRECCIÓN GENERAL
DEL ENTE PÚBLICO OSAKIDETZA

Osakidetza

**OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
DIRECCIÓN GENERAL
DEL ENTE PÚBLICO OSAKIDETZA

h

1/2h
4/5h
1/3h
4/5h

Osakidetza

**OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
DIRECCIÓN GENERAL
DEL ENTE PÚBLICO OSAKIDETZA

---

Osakidetza

**EMERGENTZIAK**
EMERGENCIAS

h

1/2h
1/3h
1/3h
1/3h

Osakidetza

**EMERGENTZIAK**
EMERGENCIAS

Osakidetza

**EMERGENTZIAK**
EMERGENCIAS

h

1/2h
1/3h
1/3h
1/3h

Osakidetza

**EMERGENTZIAK**
EMERGENCIAS

Osakidetza

**TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA**
CENTRO VASCO DE TRANSFUSIÓN
Y TEJIDOS HUMANOS

h
1/2h
4/5h
1/3h
4/5h

Osakidetza

**TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA**
CENTRO VASCO DE TRANSFUSIÓN
Y TEJIDOS HUMANOS

Osakidetza

**TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA**
CENTRO VASCO DE TRANSFUSIÓN
Y TEJIDOS HUMANOS

h

Osakidetza

1/2h
4/5h
1/3h
4/5h

**TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA**
Plaka horretan, gutxienez eraikinaren izena eta sarbidearen izena ageriko dira; horrez gain, nahi bada, interesekoa den oinarrizko informazio garrantzitsua (ordutegia, beste zerbitzu batzuk...) ere jarri ahalko da.

Atearen edo sarbidearen eskuinaldean braillea duen identifikazio-errotulua jarriko da, ekorketa ergonomikoaren eremuaren barnean (1,450 - 1,750 m). Ezin bada eskuinaldean jarri, ezkerraldean jarriko da.

Fatxadako identifikazio-plakak hurbiletik identifikatzeko modukoa izan beharko du (1 m); horrenbestez, testuaren tamaina 14 mm-koa izango da gutxienez (28 mm-koa gomendatzen da).




Fatxadako identifikazio-seinalearen eskema (UNE 170002:2009).

### 7.1.5. Norabide adierazteko kanpo-seinaleak

Eraikinaren kanpoko aldeko seinaleek, Osakidetzaren marka, Eusko Jaurlaritzaren marka eta zentroaren izena edukiko dute. Inguruetan kanpo seinaleztapeneko elementu bat baino gehiago badago, ez da beharrezkoa izango guztietan marka jartzea.

Norabidea adierazteko kanpo-seinaleak jarriko dira kanpoko ingurune konplexuetan eta zenbait sarrera dituzten eraikinetan.

Norabidea adierazteko kanpo-seinaleetako informazioa bisuala izango da soilik, eta bi aurpegietan jarri beharko da, salbu eta kokapenak ez badu uzten bi aldeetatik ikusten. Ez da derrigorrezkoa ez braillea, ez goi-erliebea erabiltzea.

Horrelako seinaleak ezingo dute oinezkoen ibilbidea oztopatu. Hau da, ondotik pasatzeko zabalera 1,80 m-koa izango da gutxienez, eta pertsonek arazorik gabe biratu, gurutzatu eta norabidea aldatu ahal izango dute, pertsona horien ezaugarriak eta mugitzeko modua gorabehera.

Talkak gerta ez daitezen, lurrean finkatutako euskarrietan jarriko dira, ahal bada. Horrela ez bada, errotuluak ez du izango 15 cm-koa baino gehiagoko hegala, lurretik 15 cm eta 2,20 m arteko altuera-tartean.

Sarbide irisgarriak Irisgarritasunaren Nazioarteko Sinboloarekin identifikatuko dira (ISA).

Irisgarriak ez diren sarbideek piktograma egokia izan beharko dute, sarbidearen ezaugarriak adieraziko dituena (adibidez: eskaileren piktograma).

Norabidea adierazteko kanpo-seinaleek distantzia ertain batetik (2 m) identifikatzeko modukoak izan beharko dute; horrenbestez, testu nagusiaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da).

Bigarren mailako testuaren tamainak hurbiletik identifikatzeko modukoa izan beharko du (1 m); horrenbestez, testuaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm- koa gomendatzen da).

Ingurune konplexuetan, oinplanoaren plano eskematikoa gehitzea gomendatzen da; plano horretan, sarbide nagusiak agertuko dira, bai eta “hemen zaude” adierazten duen puntu bat ere.

Fatxada


Osakidetza
ELGOIBARKO OSASUN ZENTROA
CENTRO DE SALUD ELGOIBAR
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kanpo-kontsultak
Consultas Externas
Ama berrien atala
Maternidad
Pediatria
Orokorra
General
h

## 7.1.6. Beiraz hornitutako guneak

Sarbideetan edo atari handietan beirazko gainazalak egon daitezke.

Gainazal horietan, bisualki kontrastatutako seinaleak jarriko dira haien luzera guztian, azpitik 0,90 m eta 1,10 m arteko altueran, eta, goitik, berriz, 1,50 eta 1,70 m arteko altueran.

Seinale horiek ez dira beharrezkoak izango gehienez 0,60 m-ko tartearekin bereizitako zutoinak baldin badaude, edo beirazko gainazalak arestian aipatutako beheko altueran langa bat baldin badu.

Beirazko ateetan, aurreko paragrafoan adierazitako ezaugarrien araberako seinaleak izango dituzte. Beirazko gainazalak seinaleztatu behar izanez gero, ipini beharreko seinaleek modu argian bereiziko dituzte zati finkoak eta mugikorrak (igarobidea), koloreen bidez edota egindako konposizioaren bidez.




Paramentuak / beirazko ateak seinaleztatzeko eskema eta adibidea. ILUNION.

# 7.2. Barneko seinaleak

## 7.2.1. Norabidea adierazteko barneko seinaleak

Norabidea adierazteko barneko seinaleak solairu bakoitzaren sarbide-gunean jarriko dira, eskailera eta/ edo igogailu nagusi bakoitzaren parean edo erabakitze guneetan (gurutzaguneak eta bidegurutzeak).

Pertsonek erraz identifikatu behar du ospitaleko zerbitzu bakoitzera joateko norabidea. Norabidea adierazteko seinaleetako informazioa bisuala izango da soilik.

Talkak gerta ez daitezen, seinale horiek, ahal bada, paretari atxikita jarriko dira gurutzaguneetan edo atarietan. Halaber, sabaitik zintzilik jarri ahalko dira, norabide-lerroren bat indartzeko edo, bestela, zoru gainean, haiek jartzeko paramenturik ez baldin badago (ikusi 3.7.1.5 atala).

Norabidea adierazteko geziak izango dituzte (ikusi 3.7.1.2 atala).

Norabidea adierazteko kanpo-seinaleek distantzia ertain batetik (2 m) identifikatzeko modukoak izan beharko dute; horrenbestez, testu nagusiaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da).

Bigarren mailako testuaren tamainak hurbiletik identifikatzeko modukoa izan beharko du (1 m); horrenbestez, testuaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da).

Ingurune konplexuetan, oinplanoaren plano eskematikoa gehitzea gomendatzen da; plano horretan, sarbide nagusiak agertuko dira, bai eta “hemen zaude” adierazten duen puntu bat ere.







OHARRA: hondo zuria eta letra urdina erabiltzea gomendatzen da norabidea adierazteko kanpo-seinaleetan, koloreak erabileraren arabera erabili ahal izateko (ikusi 3.7.1.4 atala)

## 7.2.2. Direktorio orokorra eta solairuetako direktorioak

Direktorio nagusiak eraikinaren sarbideetan jartzen dira, eta solairu bakoitzeko erabilera garrantzitsuenak adierazten dituzte. Solairuetako direktorioak solairu bakoitzeko sarbideetan jartzen dira (eskailera bakoitzaren eta/edo igogailu nagusiaren parean).

Puntu horietan, erabiltzaileak ospitaleko zerbitzuak identifikatu beharko ditu. Informazioa bisuala izango da soilik.

Talkak gerta ez daitezen, seinale horiek, ahal bada, paretari atxikita jarriko dira gurutzaguneetan edo atarietan. Halaber, zoruaren gainean jarri ahalko dira, ez baldin badago haiek jartzeko paramenturik (ikusi 3.7.1.5 atala).

Seinaleek distantzia ertain batetik (2 m) identifikatzeko modukoak izan beharko dute; horrenbestez, testu nagusiaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da).

Bigarren mailako testuaren tamainak hurbiletik identifikatzeko modukoa izan beharko du (1 m); horrenbestez, testuaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm- koa gomendatzen da).



## 7.2.3. Plano erliebedunak

Plano erliebedunak eraikinetako atari nagusietan jarriko dira, sarreratik eta informazio-guneetatik ahalik hurbilen.

Ikusteko arazoak dituzten pertsonak orientatzeko balio dute, bai eta ingurunea ezagutzen ez duen pertsonak orientatzeko ere.

Planoan eraikineko solairu bakoitzaren irudi eskematikoa jasoko da, eta gehien erabiltzen diren eta interes handiena duten eremuak, ibilbideak eta gelak identifikatuko dira (informazio-guneak, komunikazio-guneak, komunak...)

Oro har, diseinua honako oinarrizko baldintza hauetara egokitu beharko da:

- Informazioak zehatza, oinarrizkoa eta sinbolo bakunen bidez adierazia izan behar du.
- Edozein pertsona hurbiltzeko moduan egon behar du (gurpil-aulkian doazen pertsonak barne). Horretarako honako ezaugarri hauek dituen atril baten gainean jartzea gomendatzen da:
  - Azpialdean lekua libre izan beharko du, gurpil-aulkian dagoen pertsona bat hurbildu ahal izan dadin. Leku libre horren neurriak hauek dira: 70 cm-ko aaltuera librea; 80 cm-ko zabalera; eta 50 cm-ko sakonera.
  - Irakurtzeko planoa 85 cm-ko altueran egongo da, zorutik neurtuta. Planoak 40º-ko inklinazioa izango du horizontalarekiko, informazioa erraz eskuratu ahal izateko.
- Goi-erliebea eta braillea izango ditu (UNE 170002 “Errotulazio irisgarri baterako irisgarritasun-betekizunak” eta ONCEren Espainiako Braille Batzordearen araudia).
- Hurbilen dagoen sarbidetik doan bideratze-zoladura podotaktila jarriko da beti haien ondoan (ikusi 3.7.2.4 atala).
- Informazio-gunea sarbidetik oso urrun baldin badago, asistentzia eskatzeko puntua ere jarriko da, indukzio magnetikoko begiztaz hornitua.



Adibidea: plano erliebeduna asistentzia eskatzeko puntuarekin. ILUNION.

## 7.2.4. Solairuetako errotulazioa

### 7.2.4.1. Erabilera nagusiko seinaleak

Erabilera nagusiko seinaleek (eremuko seinaleak, itxaron- guneak eta zerbitzu-guneak) distantzia ertain batetik (2 m) identifikatzeko modukoak izan beharko dute; horrenbestez, testu nagusiaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da). Informazioa bisuala izango da soilik.

Atearen edo sarbidearen gainean edo eskuinaldean jarriko dira.




### 7.2.4.2. Gelen erabilerari buruzko seinaleak

Gelen erabilerari buruzko seinaleek (kontsultak, logelak, komunak eta abar) hurbiletik identifikatzeko modukoak izan beharko dute (1 m); horrenbestez, testuaren tamaina 14 mm-koa izango da gutxienez (28 mm-koa gomendatzen da).

Seinale horiek igarobideekin lotuak daudenez, braillez eta goi-erliebez ere jarri ahalko dira. Gelekin lotutako erabilerako seinaleetan korrelazio numerikoa baldin badago, braille eta goi-erliebe bidez ere adierazi beharko da informazioa (kontsulta zenbakituak, gelak edo boxak).

Atearen eskuinaldean jarriko dira, ekorketa ergonomikoaren eremuaren barnean (ikusi 3.7.2 atala).



## 7.2.5. Ikono-errotuluak. Piktogramak

Piktogramen bidez, modu argi eta zehatzean eman daiteke informazio grafikoa. Bere egitekoa betetzen badute, testuak ordezkatuko dituzte. Horrela bada, alderdi tipografikoa ezabatuko da.

Sortzen diren normalizatu gabeko sinboloek unibertsalak izan beharko dute, guztiek ulertzeko modukoak.

Ikusi 3.7.1.3. atala.




## 7.2.6. Larrialdietako errotuluak

Larrialdietako errotuluek arestiko tipologietarako adierazitako ezaugarriak izan beharko dituzte kasuan- kasuan (norabidea adierazteko seinaleak, erabilera nagusiko seinaleak eta gelekin lotutako erabilerako seinaleak).

Ikusi 7.1. eta 7.2. atalak.

## 7.2.7. Informazio-gunea. Erakusmahaiko errotuluak

Informazio-postuak identifikatzeko seinaleei dagokienez,

3.5.4.1 atalean (erabilera nagusiko seinaleak) adierazitakoa beteko da. Distantzia ertain batetik (2 m) identifikatzeko modukoak izan beharko dute; horrenbestez, testuaren tamaina 28 mm-koa izango da gutxienez (56 mm-koa gomendatzen da).

Informazio-gunearen gainean jarriko dira. Sabaitik zintzilik jartzen badira, seinalearen azpialdeko ertza gutxienez lurretik 2,20 m-ra geratuko da.

Erakusmahaiko errotuluetarako, elebitasuna identifikatzeko logotipoak, sinboloak eta markak euskarri normalizatuetan jarri beharko dira; hala nola, mahai gaineko euskarrietan, direktorio eta ateetako euskarrietan eta leihatila eta erakusmahaikoetan.

Informazio-erakusmahai bakoitzean, eraikinean eskaintzen diren zerbitzuei buruzko oinarrizko informazioa jarriko da.

Ikusi 3.7.1.3 atala, piktogramak zuzen erabiltzeari buruzkoa.

# 7.3. Arropa zuriko errotuluak

Langileen laneko arropatan, agertu beharko da langilearen identifikazioa etiketa itsaskor batean: izena eta bi abizen eta lanbide-profila. Etiketa hori bere eskuineko aldean jarri beharko da.

Gainera, euren burua euskaldun gisa identifikatzen duten langileek, “euskaraz” idazkuna duen ikurra ere eramango dute identifikazio pertsonaleko etiketatik zentimetro batzuk gorago, erdian; hala jasota dago erabiltzaile eta profesionalen euskarazko komunikazioa errazteko identifikazio-sistemaren gidan.



## 7.3.1. Bainugelako arropa zuria

Eskuoihalek 5 cm zabalerako marra urdina izango dute mutur bakoitzean.



## 7.3.2. Oheko arropa zuria

Maindireek 5 cm zabalerako marra urdina izango goialdean.

Maindireak



Burko-azalek 5 cm zabalerako marra urdina izango dute mutur bakoitzean.

Burko azala




## 7.4. Akreditazioa bisitariei

Erakundera kanpotik datozen pertsonentzako akreditazio-txarteletan Osakidetzaren marka zuriz jarriko da hondo urdinaren gainean, eta horrez gain, bisitari zenbakia eta izena.



# 8. Ibilgailuak

# 8. Ibilgailuak

## 8.1. Zerbitzu ez-asistentzialeko ibilgailuak

Ibilgailu ez-asistentzialen eta zerbitzu asistentzial ez-urgenteko ibilgailuen diseinuan, kontuan hartuko da Osakidetzaren identifikatzailea agertu behar dela, beraz, biniloz, marka eta web-orria jarriko dira alboetan, atzealdean eta goian, ibilgailuaren modeloaren arabera.

Ibilgailuak gris argi metalizatuak izango dira (761). Biniloa urdina izango da (pantone 273) erresistentzia handiko positiboan, eta Eusko Jaurlaritzaren marka alboan jarriko da, koloretan. Beti ere, Eusko Jaurlaritzaren identitate korporatiboaren eskuliburuan eta eskuliburu honetan (4.1. puntua) Osakidetza markari buruz jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie.

Kapotaren goiko aldean, identifikazioa marka sinplifikatuaren bidez bakarrik egin beharko da.

Diseinua modeloaren arabera egokituko da.



# 8.2. Urgentziazko zerbitzu asistentzialeko ibilgailuak

Ibilgailu ez-asistentzialak bezala identifikatuko dira, baina, kasu honetan, hori kolorekoak (RAL 1016) izango dira. Behealdean, alboetan eta atzealdean 3. mailako zerrenda islatzailea izango dute (ibilgailuaren neurriari eta lineari egokituta), zuria eta gutxienez 5 cm-koa.



# 8.3. Anbulantziak

Oinarrizko kolorea horia izango da (RAL 1016), eta 836/2012 Errege Dekretuan ezarritako araudia beteko du. Errotulazio osoa islapen handiko binilozkoa izango da. Diseinuan deskribatu den koloretako “uhinaren” diseinua ibilgailu motari eta neurriari egokituko zaio, kolore- eta formula-koadroaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren eta 112ren anagramak Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboaren txostenean oinarrituko dira.

Atzeko aldea, osorik, islapen handiko txebroi patroiarekin errotulatuko da, larrialdietako ibilgailuei buruzko Europako EN-1789 arauari jarraituz. (A koadroa)

4 anbulantzia mota definitzen dira:

- ZIU Mugikorra.
- Bizi-euskarri Aurreratua**
- Oinarrizko Bizi-euskarria.
- A1 eta A2 motako anbulantziak.
- Emergentzietako unitate bereziak.

** "ZIU mugikorra" errotulazioaren ordez Bizi-euskarri Aurreratua jarriko da.

## KARROZERIAKO KOLORE KORPORATIBOA

Nahasketa-formula kolore zehatzak lortzeko:

**"OSAKIDETZA" URDINA**
RAL AZUL 5022

**"EUROYELLOW" HORIA**
RAL 1016

**"OSAKIDETZA" BERDEA**
RAL VERDE B7219

| "OSAKIDETZA" URDINA. FORMULAZIOA: 488-RH X 7 | |
|---|---|
| **OSAGAIA** | **1 LITRO** |
| P.448-921 | 594,0 |
| P.488-911 | 666,6 |
| P.488-951 | 813,8 |
| P.273-1083 | 1008,4 |
| **"OSAKIDETZA" BERDEA. FORMULAZIOA: 488-RH X 8** | |
| **OSAGAIA** | **1 LITRO** |
| P.448-951 | 612,8 |
| P.488-982 | 661,8 |
| P.488-911 | 674,3 |
| P.488-963 | 688,0 |
| P.488-931 | 919-2 |
| P.273-1083 | 1139,0 |

## IBILGAILUEN ATZEKO ALDEKO TXEBROIEN TAMAINA (A KOADROA)

Zerrenda islatzaile fluoreszentea, kalitate handikoa (3. maila) edo 500 metro baino gehiagora ikusteko modukoa, 150 mm-ko gutxieneko zabalerarekin. Ibilgailuaren zabalerak zehaztuko du txebroien angelua.

**Nola jarri:**

Atzeko beiraren erdigunetik, gutxi gorabehera, lerro bat marratu behar da ibilgailuaren atzealdeko izkinetaraino. Ibilgailuaren edozein osagarriri ingurua moztuko zaio.

Ondoren, zerrenda islatzaile fluoreszenteak (horia-berdea) jarriko dira marratutako lerroaren gainetik eta azpitik. Gero, atzeko aldearen ahalik eta zatirik handiena zerrenda gehigarriekin beteko da, txandakako patroia erabiliz.

Atzeko leihatila eta sabaiko lerroa gutxienez 25 mm-ko zabaleradun material islatzaile fluoreszentearekin (horia-berdea) delineatu behar dira (errendimendu bikoitza).

## 8.3. A ZIU mugikorra

Osakidetzarenak diren unitateek Osakidetzaren marka izango dute aurreko ateetan eta atzeko atean, irudi hauetan adierazten den bezala (1. irudia). Atzealdean, kalitate handiko (3. maila) material islatzailea izango dute (A koadroa). Alboetako behealdean eta aurrealdeko kapotean 3. mailako zerrenda islatzailea (fluor horia) eramango dute, gutxienez 5 cm-koa. Ibilgailuaren diseinuari egokituko zaio.




1. irudia

## 8.3. B Oinarrizko bizi-euskarria

Oinarrizko bizi-euskarriko anbulantzietan “Osakidetza” berdearen ordez zuria jarriko da (2. irudia). Atzealdean, kalitate handiko (3. maila) material islatzailea eramango dute (A koadroa). Alboetako behealdean eta aurrealdeko kapotean 3. mailako zerrenda islatzailea (fluor horia) eramango dute, gutxienez 5 cm-koa. Ibilgailuaren diseinuari egokituko zaio.

Identifikatzaile gisa, aurreko goiko aldean, eskuinean, eta atzeko beheko aldean, eskuinean, lauki batean ibilgailuaren kodea jar daiteke, negatiboan, kontrola egiteko. Lauki hori Osakidetza urdinez egingo da (15,5 x 5,5 cm).




2. irudia

# 8.4. Helikopteroak

Euroyellow horia (RAL 1016) erabiliko da. Biniloa urdina izango da (pantone 273) erresistentzia handiko positiboan, eta alboan Eusko Jaurlaritzaren marka eramango du, koloretan. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboaren eskuliburuan eta eskuliburu honetan Osakidetza markari buruz jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie. Aireontzia eskuliburu honi ahalik eta gehien egokituko zaio, baina bereizgarri propioak behar dituenez, aldaketak egin ahal izango dira bere berezitasunagatik.









# 8.5. Biktima anitzeko gertakariak BAG

BAGen ibilgailuek, Osakidetza berdearen ordez, lauki horiak eta berdeak eramango dituzte dama-taulen antzera (3. irudia). Atzealdean, kalitate handiko (3. maila) material islatzailea jarriko da (A koadroa). Ibilgailuaren diseinuari egokituko zaio.

Flota handiak direnez, identifikatzaile gisa, aurreko goiko aldean, eskuinean, eta atzeko beheko aldean, eskuinean, lauki batean ibilgailuaren kodea jar daiteke, negatiboan, kontrola egiteko. Lauki hori Osakidetza urdinez egingo da (15,5 x 5,5 cm).




3. Irudia

# 8.6. Emergentzietako ibilgailu asistentziala

Oinarrizko kolorea horia izango da (RAL 1016), eta errotulazio osoa islapen handiko binilozkoa. Diseinuan deskribatu den koloretako “uhinaren” diseinua ibilgailu motari eta neurriari egokituko zaio, kolore- eta formula-koadroaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren eta 112ren anagramak Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboaren txostenean oinarrituko dira.

Atzeko aldea, osorik, islapen handiko txebroi patroiarekin errotulatuko da, larrialdietako ibilgailuei buruzko Europako EN-1789 arauari jarraituz. (A koadroa).



# 8.7. Emergentzietako logistikako ibilgailua

Oinarrizko kolorea zuria izango da, eta errotulazio osoa islapen handiko binilozkoa. Diseinuan deskribatu den koloretako “uhinaren” diseinua ibilgailu motari eta neurriari egokituko zaio, kolore- eta formula-koadroaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren eta 112ren anagramak Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboaren txostenean oinarrituko dira.

Alboetako behealdean eta aurrealdeko kapotean 3. mailako zerrenda islatzailea (fluor horia) eramango dute, gutxienez 5 cm-koa. Ibilgailuaren diseinuari egokituko zaio.

Atzeko aldea, osorik, islapen handiko txebroi patroiarekin errotulatuko da, larrialdietako ibilgailuei buruzko Europako EN-1789 arauari jarraituz. (A koadroa).



# I. Eranskina
# Azpiegituretako eraikinen barneko gida bisuala

# I. Eranskina
# Azpiegituretako eraikinen barneko gida bisuala

## 1. Kontzeptu-esparrua

Ingurune fisikoak eragin zuzena du erabiltzaileen osasunean eta poztasunean, eta giro egokian gaudela nabaritzeak ondorio lasaigarriak eta terapeutikoak ere baditu pazienteengan.

Humanizazioak, osasun-arloan, hainbat gai lantzen ditu, eta ildo hauetan banatzen da:

1. Konfort akustikoa: zuzenean eragiten du ongizatean.
2. Zentzumen-konforta: pribatutasuna, bistak, argiztapena, material osasungarriak, diseinu biofilikoa eta abar.
3. Diseinu inklusiboa laguntzaileentzat.
4. Seinaletika eta wayfinding arloetako diseinu integrala: eraikinean errazago orientatzeko.

## 2. Helburua

Atal honen helburua da **gomendioak ematea eta oinarrizko jarraibide orokorrak** finkatzea **Osakidetzako eraikinen barneko espazio berriak diseinatzeko**, modernitate-irudi bat proiektatu eta herritarrentzat atseginagoak eta enpatikoagoak izan daitezen.

Hala, hurbiltasuna, gardentasuna eta kalitatea transmitituko dituen ingurunea sortzeko tresnak eskaintzen dira, eta, aldi berean, Osakidetzaren sare osoan haren identitatea ezagutu eta errepikatzeko moduko ingurunea izateko helburua betetzen da.

## 3. Irismena

Irismenak Osakidetzaren asistentzia-sare osoa hartzen du, eta arreta berezia jartzen du erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten lekuetan.

**Adibideak: sarbideak, itxaroteko lekuak, pasabideak, kontsultak, logelak etab.**

Azken batean, gomendio eta jarraibide komunak finkatu behar dira pazienteek ohiko egonaldietan erabiltzen dituzten eremuak edo espazioak diseinatzeko.

**Atal honetan ez dira aipatzen kualifikazio maila handiagoa behar duten eremu espezializatuagoak edo lan-eremuak. Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiko Zuzendaritza Ekonomikoak ezarritako irizpideen arabera finkatuko dira eremu horiek, Kontratuen Legeari.**

# 4. Diseinu korporatiboa

Eraikinen eta azpiegituren diseinu korporatiborako jarraibideetan, ezaugarri hauek hartu dira kontuan:

- Egokitzeko gaitasuna. Diseinu-gidan irtenbide batzuk eskaintzen dira, zenbait material erabilita (beirazko hormak, biniloak, elementu mugigarriak etab.). Irtenbide bat baino gehiago ematen dira, obra berria den edo birmoldaketa handia edo txikia den kontuan hartuta eta abar.
- Neutraltasuna. Koloreek (tonu leunak erabiliko dira) eta elementuen diseinuak ez dituzte lehendik dauden diseinuak oztopatuko.
- Segurtasuna. Elementu horiek jartzeak ez dituzte orientazio-seinaleak oztopatu behar, zentrorako berariazko arau-baldintzak bete behar dituzte eta ez dituzte mantentze eta garbiketa lanak zaildu behar.

## 4.1. Hormak

Hiru akabera-mota ezarri dira hormetarako, erabileraren eta kokapenaren arabera:

**A. Pintura.** Paramentu bertikal gehienetan erabiliko da. Horixe gomendatzen da irtenbide estandar gisa.

**B. Sareta.** Zenbait eremu bereizteko erabiltzen da, hala nola joan-etorriak kontrolatzeko eremua. Administrazio-eremuko seinale nagusiak jartzeko ere erabiliko da.

**C. Horma-estaldura binilikoa.** (AUKERAKOA). Pinturaren ordez erabili daiteke administrazio-eremuan. Erabili edo ez aukerakoa izango da eta puntualki erabiliko da, mahaien atzean.

### 4.1.A Pintura

- **Zer?** Ahal dela, jatorri mineraleko pintura naturala erabiltzea proposatzen da, substantzia organiko lurrunkor (KOL) gutxikoa, emisiorik eta disolbatzailerik gabea; kolore zuria, akabera matea eta testura leuna dituena.
- **Nola?** Aurrez prestatutako gainazal leunaren gainean eman.
- **Non?** Esku hartuko den eremuko horma guztietan.
- **Proposamena:** Caparol indeko-plus ELF pintura edo antzekoa. Barnealdeetarako kalitate handiko pintura da, emisiorik eta disolbatzailerik gabea. Akabera mineral matekoa.
- **Kolorea:** Zuri hautsia, akabera matea eta testura leunekoa.

### 4.1.B Sareta

- **Zer?** Sareta-itxurako dekorazio-panela, listoi bertikalduna. Trenkada autosostengarri baten gainean hozkatutako elementu bat errepikatuz osatua.
- **Nola?** Profila trenkada autosostengarriaren gainean itsatsiko da, fabrikatzaileak gomendatutako itsasgarria erabilita. Sareta lan-eremu baten eta erabiltzaileen joan-etorrien arteko elementu banatzaile gisa erabiltzen bada, 1,50 m-ko altuera eman beharko zaio eta goiko aldean profil metaliko lakatu beltz bat jarrita errematatu beharko da.
- Behean, berriz, zokalo bat jarri beharko zaio errematea egiteko(“profilak eta zokaloak” atalean adierazi da nolakoa), eta panela zokaloaren gainean gainjarrita geratzeko moduan jarriko da.
- **Non?**
    - Espazioak hala eskatzen duenean, lan-eremuaren eta jendearen joan-etorrien eremuaren artean jarriko da. Kasu horretan, 1,50 m-ko altuera emango zaio trenkadari, bi espazioen arteko ikuspena bermatzeko.
    - Administrazioko mahaien edo antzekoen atzeko horman, seinaleak jartzeko eta epeltasuna ematen duen dekorazio-panel izateko. Kasu honetan, sabai aizunera arteko altuera emango zaio, eta zabalera kasu bakoitzaren araberakoa izango du (gutxienez, 1,50 m-ko zabalera ematea gomendatzen da).

- **Proposamena:** ORAC DECOR-en W11 BAR, L200 x H25 x A 2 cm modeloa edo antzekoa, trenkada autosostengarriaren ondoan.
- **Kolorea:** Zuria edo zurezko akaberaduna –pagoa/haritza– edo antzekoa.






### 4.1.C Horma-estaldura binilikoa

- **Zer?** Horma-estaldura binilikoa: kotoizko euskarri baten gainean ur-tintaz estanpatutako geruza binilikoa.
- **Nola?** Erresistentzia handiko aldebakarreko ukipen-itsasgarri bidez trenkada-multzoaren gainean itsatsia, zorutik sabairaino, Tarkett-en PVC PL8 SILVER GREY zokaloa edo antzekoa duela.
- **Non?** Espazio publikoko hormetan. Paramentu bertikaletako batean bakarrik sartzea proposatzen da, akaberak leuntzeko.
- **Proposamena:** VESCOM markako KILBY modeloa edo antzekoa.
- **Koloreak:** Tonu zuri hautsiak edo gris argiak. Salbuespen gisa, Osakidetzaren kolore korporatiboarekin bat datorren kolore bat.



## 4.2. Zorua

Bi lurzoru-akabera ezarri dira, espazioak seinaleztatzeko eta eremutan banatzeko.

- **Lan-eremuko eta pazientearen eta profesionalaren arteko solasaldietarako den eremuko zorua** (adibidea: administrazio-eremua). Zurezko itxurako akabera duen zorua proposatzen da, pazienteak artatzeko eremuari goxotasuna emateko.
- **Itxarote-eremuko eta pasabideetako zorua.** Koloredun zorua proposatzen da.

Bi irizpide ezarri dira, esku hartzea obra berria den edo birmoldaketa den kontuan hartuta.

A. Birmoldaketa-lanetako zoruetarako proposamena.

B. Obra berriko zoruetarako proposamena.

### 4.2.A. Birmoldaketa-obra

#### Lan-eremuko eta pazientearen eta profesionalaren arteko solasaldietarako den eremuko zorua

- **Zer?** Binilozko zoladura heterogeneoa, 2 mm-ko lodierako zurezko akaberaduna, beira-zuntzezko sarearekin armatua, biribilkitan.
- **Nola?** Zoladura fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Adibidea: administrazio-eremua, barruko lan-eremua, harrera-mahaiak eta berehala artatzeko itxarote-eremua. Zorua mahaien eremutik harago hedatzen da, herritarrak berehala hartzeko itxarote-eremua ere barnean hartzeko.
- **Proposamena:** Binilozko zoladura heterogeneo trinkoa, TARKETT-en ACCZENT EXCELLENCE 80 modeloa edo antzekoa. TopClean XP™ gainazalaren babes esklusiboak ez du behar ez desugerketarik ez argizaria ematerik sekula, eta oso erresistentea da orbanekiko eta iodoa eta eosina bezalako produktu kimikoekiko.

Modelo hau proposatzen da:



LONG MODERN OAK GREGE

## Itxarote-eremuko eta pasabideetako zorua

- **Zer?** Binilozko zoladura heterogeneoa, koloreduna, 2 mm-ko lodierakoa, beira-zuntzezko sarearekin armatua, biribilkitan.
- **Nola?** Zoladura fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Egokitzapenak itxarote- edo pasabide-eremu bat eduki eta gela ireki bat sortzeko adinako azalera duen zentro edo espazioetan, zoladura-kolorea aldatzea gomendatzen da, lan-eremuak eta itxarote eta pasabide-eremuak elkarrengandik banatu eta bereizteko.
- **Proposamenaa:** Zoladura biniliko homogeneoa, TARKETT-en iQ NATURAL modeloa, “iQ NEW FOR LIFE” bilduman integratua edo antzekoa. % 75 baino gehiago lehengai berriztagarriak ditu, landare-jatorriko bioplastifikatzaileak barne.

Hiru modelo hauek proposatzen dira:



1. Aukera:
**FLAKES COLD BEIGE 0832**



2. Aukera:
**FLAKES LIGHT WARM BEIGE 0480**



3. Aukera:
**NATURAL PINK CLAY 0858**

### 4.2.B. Obra berria

#### Lan-eremuko eta pazientearen eta profesionalaren arteko solasal-dietarako den eremuko zorua

- Obra berriko zoruetan zoladura portzelanikoak jartzea proposatzen da, zoladura desberdinen lodieretan kota-jauzirik eta -desberdintasunik izan ez dadin.
- **Zer?** Pago/zur edo antzeko akaberadun zoladura portzelanikoa.
- **Nola?** Zoladura fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Lan-eremuan eta pazientearen eta profesionalaren arteko solasaldietarako den eremuan.
- **Proposamena:** SALONI markako edo antzeko zoladura portzelanikoa.

Eredu hau proposatzen da:



MADE HAYA 45X90

## Itxarote-eremuko eta pasabideetako zorua

- **Zer?** Zoladura portzelanikoa.
- **Nola?** Zoladura fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Egokitzapenak itxarote-eremu bat eduki eta gela ireki bat sortzeko adinako azalera duen zentroetan, zoladura-kolorea aldatzea gomendatzen da.
- **Proposamena:** SALONI markako edo antzeko zoladura portzelanikoa.

Hiru aukera hauek proposatzen dira:



1. Aukera:
**PETRALAVA LAPPATO 90X90 ARENA**



2. Aukera:
**PETRALAVA 90X90 MARFIL**



3. Aukera:
**ALMA 43X43**

## 4.3. Sabaia

Bi sabai mota ematen dira aukeran, non jartzekoak diren kontuan hartuta.

- **Lan-eremuko eta pazientearen eta profesionalaren arteko solasaldietarako den eremuko sabaia.**
- **Pasabideetako eta itxarote-eremuko sabaia.** Egokitzapenak lan-eremu bat eduki eta gela ireki bat sortzeko adinako azalera duen zentro edo espazioetan, sabai akustiko bat jartzea proposatzen da.

### Lan-eremuko eta solasaldietarako eremuko sabaia

- **Zer?** Sabai aizun akustikoa, U formako zuntzezko profil modularrez osatua.
- **Nola?** Sabaia fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Lan- eta solasaldietarako eremua, laneko gunearen eta mahaien gainean. Eremu laukizuzen bat edo zentroaren geometriara egokitutakoa jarri, mahaien eta barneko laneko gunearen gainean. Laukizuzen hori ahalik eta handiena izango da arreta-eremua nabarmentzeko.
- **Proposamena:** Feltrozko sabai aizun modularra, HeartFelt 40x80 markakoa edo antzekoa. Sabaian luzetara integratutako LED argiak ere jarriko dira.




Perfila



### Itxarote-eremuko edo pasabideetako sabaia

- **Zer?** Zur-zuntzezko txirbilez egindako sabai aizun erregistragarri akustikoa.
- **Nola?** Sabaia fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar da.
- **Non?** Egokitzapenak itxaroteko eremu bat duen zentroetan, sabaia aldatzea gomendatzen da, konfort akustikoa hobetzeko.
- **Proposamena:** KNAUF ORGANIC markako sabai aizun erregistragarri akustikoa, zur-zuntzezkoa, 120x60, kolore beltzeko profil metaliko erdi-ezkutuak dituena.
- **Kolorea:** Zuria edo naturala.

*120x60ko pieza osoak mantentzeko, zuriz margotutako pladurrezko 5-20 cm-ko (proiektu bakoitzaren arabera) zerrenda perimetral bat utziko da.



## 4.4. Itxaronaldietarako eta bisitetarako aulkia

- **Zer?** Bisita-aulkia
- **Non?** Jendearen harretarako gunea, itxarote-eremua, gelak...
- **Proposamena:** Cavatina Steelcase modeloko bisita-aulkia, 4 hankakoa eta metalezko besoduna metalezko egitura eta polipropolenozko karkasa urdina C5007.
- **Kolorea:** Osakidetzako kolore korporatiboaren antzeko urdina.



Color / C 5007 Azul Brillante / Brilliant Blue



## 4.5. Hormako elementu akustikoak

Horman elementu akustiko bat jartzea proposatzen da, pazienteak eta profesionalak solasean aritu behar diren eremu zabaletan sortzen den zaratari konponbide bat emateko.

- **Zer?** Forma hexagonaleko irla akustikoa, horman instalatzeko.
- **Nola?** Panelak fabrikatzailearen erabilera-gomendio eta -jarraibideen arabera instalatu behar dira.
- **Non?** Solasaldiak izaten diren hondoko horman.
- **Proposamena:** Rockfon Sysysyem Eclipse Island markako irla akustikoak, forma hexagonaldunak, 1160x1160x40 neurrikoak, arroka-ilez eta errezel margotuzko aurpegi ikusgaiez osatua.
- **Kolorea:** Urdinaren gamako hainbat kolore proposatzen dira, Osakidetzaren urdin korporatiboarekin batera: SPACE/STORM/AZURE/FRESH

